

Zer diñosku azken-azkenean Avila'ko Teresa deunak?

Zer diñosku bere idatziez eta bizitzeaz, bere izate guztiaz? Santu guztiak, santu diranez, Jaungoikoaren graziaren testigu dira, Jaungoikoaren adiskidetasunaren, errukiaren, ederraren testigu. Jaungoikoaren ontasuna eurekan artu dabe eta euren bizitzan gorpuztu ta ispillatzen da.

Baiña, jakiña danez, Avila'ko Teresa deunagan aparteko fenomenoak, agerpen bereziak, aurkitzen doguz. Agerpen mistikuak. Onetzaz lan batzuk egin dira. Baiña ez dot uste azken epairik emotekorik. Sailkatzeak eta onelako lanak izan dira, edo-ta azterketa batzuk be bai. Baiña azterketok elbururik garrantzitsuenari begira, au da, euren benetako izateari begira, egin bear litzakez. Esate baterako, oiñarrizko itauna olangoa litzake: norbere sikologi aparteko agerpenak dira ala artez Jainkoagandikoak? Norbere sikologiagandikoak ba'lira be, Jaungoikoaren eskuetan dagoan on-bide bat lirake. Zuzen Jainkoagandiak izanez, ostera, berez mirariak litzakez, gogo-mirariak. Jakiña, mirariok, barrukoak diranez eta baktxarenak, esperientzi ori izan dauanarentzat litzakez mirari; besteontzat zearka bakarrik. Badakigu Teresa'k ez gaituala asmuz ta jakiñez atzipetzen. Ez diñosku guzurrik. Baiña berak diñoanaren bidez bakarrik, aparteko agerpen orreen egia ta izatea aztertu bear. Alan be, azterketarik sakonena ta zeatzena egin ondoren, ziurtasun osora ezin leiteke eldu. Zegaitik? Esandakoagaitik:

fenomeno orreek beti be bere barruan geratzen dira. Guk ez dogu agerpen orreen esperientzirik. Bere itzen bidez datorriguz, eta euren izate ta neurririk ez dogu ikusten. Ez dot uste, ba, azken ziurtasunez ezagutu geinkezanik.

Baiña, Teresa deunaren santutasuna onartzeko fenomeno orreetan siñistu bearrik ez daukagula be badakigu. Bere santutasuna ez datza orretan. Santutasuna Jaungoiko ta lagun-urkoaganako maitasunari baietz esatean dago. Baietz osoa. Aparteko agerpen orreek, maitasunaren zuzperbide ta agerbide izan leitekez, baiña beti be bide, ez izate bera.

Orregaitik, Teresa deunaren santutasun berezitasuna, bere santu izateko aparteko erea be ezin geinke geiago barik ezoizko agerpen orreetan ipiñi. Eta, beraz, bere benetako kristau irakatsia be ezin leiteke agerpen orreen bidea izan.

Teresa deunak ainbat gauza irakasten ditu espirituari eta kristau bizitzari buruz bere idatziz eta bizitzaz. Esate baterako, garrantzitsuenen artean, otoi-bide edo otoi-bizitza, eliz-sentipena, arimen-ardura edo maitasuna, erligioso anaidi era barria, andrazkoe duintasuna. Baiña azken-azkeneko Teresa'ren testigantza ta bizi-irakatsia Jainko-maitasuna da. Jakiña, santu guztien testigantza da ori. Orretan datza santutasuna-ta. Baiña Teresa deunagan maitasun orren esperientzia daukagu. «Esperientzi» itza sendo ta gogor ulertzen dogu emen. Gaur egun, izan be, edozein gauzari deitzen jako «esperientzi», eta orrela ia edonork euki oi dau fede ta Jainko «esperientzia». Teresa'gan, ba, maitasun orren esperientzia argia da. Beste gauza bat da esperientzi orren balioa edo egia edo azken izatea. Ori ezin geinke ziurtasun osoz erabagi, leen esandakoagaitik. Baiña fede barruan, fedea daukanarentzat, maitasun-esperientzi orren egia ziurra da. Diranak dirala beste aparteko agerpenak edo fenomenoak, maitasun esperientzi orrek bere berezko ta aparteko balioa ta egia dau. Maitasun esperientzi au aparteko fenomeno mistikuekaz batera edo, neurri baten, euren ondorio lez be agertzen da, baiña baita agerpen orreek barik be. Eta naiz ta agerpenok bakoxtak norbere erara ta eritzira ulertu ta azaldu, argi dago Teresa'gan aparteko maitasun orren esperientzia aurkitzen dogula. Esperientzi betea, eta ez siñistua bakarrik, edo siñistuaz batera benetan betegarri ta betetasun

lez agertzen dana. Beste santuengan be agertzen da. Baiña bearbada ez guztiz bardin. Eta ez da bearrezko era orretan eta sendotasun eta «fisikotasun» orregaz sentitzea. Teresa'gan, oster, or daukagu. Lenengo Jaungoikoak Teresari dautson maitasuna; eta bigarren (batera) Teresa'k Jaungoikoari dautson maitasuna. Lenengoa da neurriarik barik garrantzitsuagoa, eta bigarrenaren errazoi guztia. Jainkoaganako maitasuna Jaungoikoaren beraren maitasun barik, utsa litzake.

Orain, baiña, Teresa deunaren maitasun esperientzi au egitezko giza izateagaz konparatuz, au aurkitzen dogu: ia gizadi guztiaren bidea ez dala onelakoa, eta egia garbi autortzeko, antzik be ez daukala. Erligioso artean, esate baterako, badagoz apal eta zeatz eta arduratsu ebangelioari serbitzen alegin dagienak. Baiña ez dabe orrelako esperientzirik izan. Eta erriko kristiñauen artean bardin: borondate onez ebangelioari jarraitzen alegintzen diranak. Eta, gero, beste mundu guztia, gizaldietan zear: Kristoren izenik ezagutu ez dabenak, edo ezagutu arren, ain urrundik artu dabenak. Ia gizadi osoaren bidea ez da Teresa deunaren esperientzi bidea.

Ba ete dago artuemonik, zerikusirik, Teresaren esperientzi bide onen eta gizadiaren bidearen artean? Zer esan daikigu geuri, eta zer, batez be, errukarrien artean errukarrien diranai, ez lurrik eta ez zerurik ez daukenai? Pribilegio bat ete da, ba, kasketaldi bat? Eta olan ez bada, zelan da guretzat Jaungoikoaren berbea, zelan da barri ona?

Berarentzako pribilegio uts bat balitz, ez litzake guretzat orregaz zerikusirik eukiko. Baiña kristau fedean ez dago olango barri ona izango, eta ez geunke guk aparteko izakera doatsu orregaz zerikusirik eukiko. Baiña kristau fedean ez dago olango pribilegiorik. Besteekandik bereiztu ta banandu ta norberarentzat bakarrik gordeteko grazi-doairik ez dago Kristoren Elizan. Kristo bera, Jaungoikoaren Semea, guztiz guretzat dan lez, olan kristau guztiak. Nai ta nai ez, Kristoren izakerea da kristauen neurri ta izate-legea. Au olan dala, Teresa'gan agertzen dan Jainko-maitasun esperientzia danontzat izan bear. Emoteko da. Maitasun barru orretara beste guztiak deitzeko edo maitasun orren bultzadaz besteai lagun izateko.

Jainko-maitasunaren agerpena. Teresa ain argi ta bakan aukeratutzat agertzen dan lez, beste guztiak be, euren partez ukatzerik ez dagoan neurrian, maitasun bardiñaz aukeratuak dira. Eta eurak be, euren erara, Jaungoikoa olan maitatu leikeela adierazoten dau. Fedean eta illuntasunean gertatzen danaren agergarri da Teresa'gan agertzen jakuna.

Baiña gosez ilten diranak, zelan artzen dabe maitasun au? Eta txarritokietan lez pillatuta bizi diranak, geisorik, euneko irurogei ume ilten jakezala, neskatoak umetarik bizi-bearrez euren gorputzak saltzen dabezala, non edo zelan artzen dabe Jainko-maitasuna? Zer esan gura dau emen «maitasun» itzak? Kristau fedearen muin-muiñean aurkitzen gara arazo onetan. Teresa'gan ain argi, indartsu, fisiko ta konkreto agertzen dan Jainko-maitasunak berberak inguratzen ditu beste personak be. Geiago: esandako errukarriak dira lenen-lenengo aukeratu ta maitatuak. Eurak dira «txiro» ta «negar dagien» Kristoren zoriontsuak. Jaungoikoak berak «legortuko dautsez begi-malko guztiak». Berak gozatu ta poztu (*Agerpena*, 21,4). Baiña «gero» negarrak legortuko ditun Jaungoikoaren maitasuna ez da gerokoa. Oraindixek dago eurekaz eta eurekan Jaungoikoaren maitasuna ta biotzberatasuna. Eta eurak be, argi jakin barik, oraindixek dabe maite ezkutuko Jainko-maitasun ori. Onek olan izan bear dau, Teresa'gan agertzen dan maitasuna egia ba'da, eta batez be Kristo'gan agertu zan maitasuna egia ba'da.

Zelan gertatzen dan au ez dakigu benetan. Teresa'gan jazoten dana askoz ulergarriago da guretzat. Eta orregaitik jaku ain zuzen be testigantza ta adierazpide. Or maitasuna maitasun lez agertzen da. Lur onetan «maitasuna» esanez adierazi gura dogunaren antzekoa. Aipaturiko beste kasuetan, ostera, maitasuna ezkutuagoa da, eta maitasun antzik be ez dauka. Baiña Jaungoikoa Jaungoiko da, eta ez gizon. Giza-neurriz eziñezkoa litzakena, ez da beste barik eziñezko Jainko-neurriz ikusi ezkerro. Jainko-idea bera Mugabakoaren idea danez, maitasun antzik ez daukana be maitasun misterioaren edo ezkutuzko egiaren barruan egon leiteke. Orrela, lur onetako maitasun irudiak bai balio dauskue eta bearrezko jakuz; baiña ez dira, nai ta nai ez, maitasunaren egi osoa, ez dira bere era bakkarra. Elburu ta zuzenbidea ispillatu arren, baliteke mundu

onetako bidean Jainko-maitasuna beste ezkutuzko eratan gor-puztea.

Zegaitik ez da gertatzen besteengan Teresa'gan gertatu dana? Jaungoikoarentzat ez litzake zail. Egia da norberak be norbere askatasunez erantzun bear dauala. Baiña Teresa'gan ain ugari ixuri izan zan maitasuna, zelan ez da ixuri batez be ez lurrik eta ez zerurik ez daukenengan? Kristau fedea diñoan lez, maitasun ori benetan eta aparteko eraz dago eurekan. Baiña zegaitik ez da agertzen Teresa'gan agertzen dan lez, errukarrienak beintzat poztuz ta betez? Erantzun osorik ez dauka itaun onek, Jainkoarekiko beste itaunak be ez dauken lez. Baiña Jaungoikoarentzat era bat nai beste ez da garrantzitsua: bere Mugabakotasunean aldiaren eza bete leike-ta. Oraindik ditu maite, ezkutuan, mugabako maitasunez, aldian eurai agertzeko miraririk egin ez arren. Aldian aldi-eraz ditu maite, bideko eraz, itxaropenaren eraz. Ez giza-ulermenak edo irudimenak eskatuko leuken betetasunez: ori ez litzake ain zuzen be aldi eta itxaropenaren erea. Mundua barik, elburua litzake, betiko etxea. Baiña ez gagoz etxean, bidean baiño.

Itxaropenezko ta eskutuko Jaungoiko ori, gero, kontzientziaren bidez agertzen da munduko bidaldi onetan; zuzentasun, erruki, ontasun, esker on, parkamen, anaitasun moral-eskakizunen bidez. Moral ontasuna (benetako ontasuna) Jaungoikoaren agerpena da. Kontzientziak aurrean ipinten dauan ontasun-eskakizuna Jaungoikoaren agerkundea. Agerkunde berezia. Ain zuzen be, kontzientziko edo moral agerkundea. Ez lenengo ta bein *moral-eskakizuna* dalako, *ontasun* eskakizuna dalako baiño. Giza-ontasuna bera da Jaungoikoaren agerpide era bat. Era orokorra edo unibersala, betikoa ta nai-ta-naiezkoa. Kontzientzi edo moral ontasun barik ez dago benetako Jaungoiko agerkunderik, eta geienetan kontzientzi orren bidez agertzen da bakarrik. Kontzientzi ontasuna ukatzea Jaungoikoaren agerkundea ukatzea da. Ontasunaren bidez bere munduratzea ukatzea, galerazotea. Kontzientzia Jaungoikoaren ontasun lekua dogu eta epaia.

Jaungoikoa aundi iragarten da Teresa'gan. Baiña neurri barik askozaz aundiago da izan. Eta bere maitasuna emoteko ez ditu bear Teresa'gan agertzen diran era bereziak. Giza-

biotzak eta bizitzak bereganatzeko ez ditu bear bide bardiñak ezta antzekoak be. Teresa'k oiñarrizko egi au erakusten dausku betirako eta nekatu barik: Jaungoikoak orren bizi, orren konkreto eta bakotxa orren aparteko eraz maite gaituala. Baiña, gero, maitasun orren erak beste gizakiengan beste era batekoak izan leitekez eta dira, zenbatu ezin-alako beste era ezbar-diñak.

Luis Arostegi

Garage ETXEITA

SOLORAKO TA BASORAKO MAKIÑA BANATZAILLEA

Baserritarrak: Onako makiñarik bear ba'dozue, merke ta onak etxe onetan aurkituko dozuez.

Urrut. 73 04 64 - 73 05 38

AMOREBIETA - BIZKAIA